

Prensa-oharra- Aiarako Kuadrilla- Cuadrilla de Ayala

Aiarako Kuadrillak 32 pertsona kontratatuko ditu Lanbideko lehentasunezko arretako kolektiboen programa baliatuz

- Kontratazioak Lanbideko “Berrorekarako eta ekitaterako lurralde proiektu berriak. Lehentasunezko arretako kolektiboak” programaren baitan garatuko dira.
- Hau lurralde proiektuen hirugarren edizioa da, jende gehien kontratatuko duena, programa horietan 2023an kontratatutako pertsonen kopurua bikoiztera helduz.
- Eskainitako 32 postuetarako iragarkiak Lanbiden argitaratuko dira otsailaren 9tik 19ra.

Aiaraldea, 2024ko otsailak 8

2022an eta 2023an gauzatutako programak modu positiboan amaitu ondoren, Aiarako Kuadrillak 32 pertsona kontratatuko ditu datozen sei hilabetetan zehar Lanbideko “Berrorekarako eta ekitaterako lurralde proiektu berriak. Lehentasunezko arretako kolektiboak” programa baliatuz. Bere helburu nagusia izango da **kolektibo zaugarriei eta/edo eskusio arriskuan daudenei edo 45 urtetik gorako** pertsonen enplegu-prestakuntza eskaintzea.

Hau lurralde proiektuen hirugarren edizioa da, jende gehien kontratatuko duena, programa horietan 2023an kontratatutako pertsonen kopurua bikoiztera helduz.

Eskainitako postuetarako iragarkiak Lanbiden argitaratuko dira **otsailaren 9tik 19ra** eta **Amurrio, Laudio, Artziniega eta Aiara** udalerrietan gauzatuko dira, zeinetan egingo den zonaren arabera lan-profil ezberdinak dakartzan programaren harrera. **Laudion 8 pertsona** kontratatuko dira; **Artziniega** eta **Aiara** udalerrietan **8 pertsonekin** kontatuko dute, guztiak 45 urtetik gorakoak izanik; **Amurrioren** kasuan, **8 pertsonako bi talde** kontratatuko dira eta horietako bakoitza kolektibo zaugarriei eta/edo eskusio arriskuan dauden kolektiboei dagozkie.

Pertsona interesdunak LANBIDEn eskaintzetan izena emanaz soilik izan daitezke partaide.

Egin beharreko lanak askotarikoak izango dira: eskuzko lanak, esaterako, lorezaintza, sastrakak garbitzea, pintatzea, hiri-altzariak mantentzea eta antzekoak. Amurrioren kasuan, taldeetako batekin esperientzia pilotu bat garatuko da, udalerriko zenbait fatxadetan muralak diseinatuz eta margotuz. Kontratu horiek **6 hilabetekoak izango dira % 75eko lanaldiarekin**; zeharkako konpetentziei buruzko derrigorrezko prestakuntza 100 ordukoa eta banakako lan orientabidea 6 ordukoa izango dira. Prestakuntza horiek ez dira ordainduko programa hasi aurretik eta lanalditik kanpo 6 hilabeteko iraupena izango duen programan zehar.

Aiarako Kuadrillako lehendakari **Encina Castresanaren** esanetan, “exekutatuako bi programen emaitza positiboak ikusita (27 eta 16 kontratazio, hurrenez hurren) programa hau berriz garatuko da, izan ere, aukera bikaina suposatzen du kolektiborik zaurgarrienak gizarteratzeko behar diren prestakuntza- zein orientabide-tresnak emateko. Kolektibo hauentzako enplegu-sustapenak, beraz, profesional hauen garapen ekonomiko egonkorrerako eta ongizaterako ageriko urratsa suposatzen du”.

Hedabide Kontaktua:

Miriam Bahillo

mbahillo@coonic.com

☎ 659 753 399